

Irakurri hurrengo errezeta. Gero, bete ezazu hutsuneak beheko hitzak erabiliz:

ARROZA TOMATE ARRAUTZEKIN



Osagaiak

- Saltzarako tomate
- Baratxuri ale 1
- Oliba-olio
- Gatza
- 250 g arroz
- Ura
- 1 arrautza

- _____, lapiko batean ura gatz pixka batekin jarri bero-bero egon arte.
- Oso bero dagoenean arroza bota eta nahastu _____ batekin lagunduz.
- 20 _____ utzi egosten.
- Denbora pasa eta gero, arroza xukaderara atera ura kentzeko.
- _____, zartagin batean olio pixka bat bota eta bero dagoenean baratxuri alea zatituta bota eta utzi nahikotxo _____ arte.
- Gero, arroza gehitu eta utzi minutu pare batzuk baratxuri zaporea _____.
- Bitartean, beste zartagin batean olio nahikotxo jarri arrautza frijitua egiteko.
- _____, ontzi batean tomatea jarri berotu arte.
- Zerbitzatzeko, plater polit batean bi burruntzali arroz eta tomatea jarri. Arrautza gainean kokatuko dugu!

goilara

Ondoren

Bukatzeko

hartzeko

Hasteko

minutu

gorritu